

Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves Azkue Aberasturi Barrundia Uribarri Bizkaiko Lekeition jaio zen 1864.eko abuztuaren 5ean, Edurtzetako Ama Birjinaren egunean. Gurasoak Eusebio Maria de los Dolores Azkue olerkaria, hiri berean 1813.eko apirilaren 13an jaioa eta Maria Karmen Aberasturi, Mundakan 1835.eko urtarrilaren 23an jaioa, izan ziren. Biak ziren alargunak Mundakan 1857.eko ekainaren 3an ezkondu zirenean. Aita Laureana Ozerin andrearekin ezkondu zen lehendabizi 1842an eta 1856an hil zitzaionean hiru semealaba hauekin geratu zen alargun: Alfonso-Maria (1845-1894), Conrado-Maria (1853-1870) eta Sol (1855-1937). Amak Tomas Agirre senarra galdu zuen 1856an eta familiarik gabe alargundu zen. Ezkontza honetatik hiru semealaba jaio ziren Mundakan, bi txikitan hilak eta Aurora-Maria (1860-1937). Lekeition Nautika Eskola berri bat eraiki zenean, bertako katedra lortu zuen Eusebio Mariak 1863an eta bizileku berri honetan zegoelarik Azkue/Aberasturi familia, Lekeition jaio

zen, esan dugunez, Resurreccion Maria 1864ean. Gero jaio ziren beste lau seme-alaba, hiru txikitan hilak eta bizirik iraungo zuen Diana-Maria (1868-1934). Eusebio-Maria Azkue 1873.eko azaroaren 11n hil zenean, bost semealabekin geratu zen alargun

R.M. AZKUE (1864-1951).





EUSEBIO M. AZKUE  
(1813-1873)  
Eusebio Maria Azkue idazle lekeitiarraren eta beronen bigarren emazte M. Karmen Aberasturiren semea izan zen R. M. Azkue. Eusebio Mariaren olerki-obrarik mardulena semearen eskutik eman zen argitara, liburu gisa: *Parnasorako Bidea* (Bilbo, 1896).

Mari Karmen: zenduaren lehen ezkontzako Alfonso-Maria eta Sol, eta bereak ziren Aurora-Maria, Resurreccion-Maria eta Diana-Maria. Azkue/Ozerin eta Azkue/Aberasturi ezkontzetatik jaio ziren hamabost semealabetatik bat ere ez zen ezkondu, eta jarraipen gabe geratu zen Lekeitioko Azkue deitura.

Txiki-txikitatik edoski zuen Azkuek herriko euskara, eta horretaz gain aitarengandik zetorkion euskal literaturarekiko zaletasuna eta amarengandik herri jakintzaren ezaguera eta hartarako joera berezia. Sorterrian giza gaiak ikasten ari delarik, Juan-Maria-Blas Altuna organulariak sorturiko musika giroa ere

xurgatzen du, eta 1868an durangar hori hil zenean, Joakin Belasko organulari berriarekin egiten ditu musika ikasketak. Lekeitioko Nautika Eskolan bi urte bete ondoren Bilbon zegoen Bizkaiko Institutuan burutzen du batxilergoa 1878 eta 1881 urteen bitartean.

Gasteizko Apezgaitegira jo zuen 1881.eko irailean eta 1885 arte egin zituen bertan Filosofia eta Teologiako estudioak. Oporretan Bizente Goikoetxea musikalaria ezagutu zuen 1883an, Julien Vinson-ek *Le Folklore du Pays Basque* argitaratzen duen urte berean eta Azkuerengan herri jakintzako hazia ernetzen denean. Azkuek berak dioskunez, «gaztetxo nintzan (hogei urte hor-hor baintuena) Seminarioko ikastarondoko opor-egunetan, astiune batzuetan behintzat, herriaren ahotik ipuin eta irakurgai bat edo beste ikasten ari izan nintzanean». Orduan jaio zen euskal kulturaren lekuko izango zen *Euskalerraren Yakintza* emango zigun «erraldoi bakarti eta berezia». Baina apezgoa du helburutzat eta dirulaguntza lortu ondoren Salamancako Apezgaitegira doa 1885.eko urrian, non elizgaietatik aparte organulari, abeslari eta koruaren zuzendari agertzen zaigu. Uztailean apez ordena hartu ondoren, Lekeition eman zuen meza berria

1888.eko irailaren 29an, Mikel Deunaren egunean. Baina ez ditu mozten Salamancako harremanak 1893.eko ekainean Teologian doktoregoa lortu arte.

## Euskara Katedra Bizkaiko Institutuan

Aureliano Galarza mungiarrek Bizkaiko Diputazioari eskatu zion 1887.eko azaroaren 8an euskara katedra sor zezala Bilboko Institutuan. Lehiaketarako baldintzak onartu ziren eta 1888.eko martxoaren 31 arterainoko epea eman zitzaien eskatzaileei. Deialdi honen berri Salamancan jakin zuelarik, *Grankanton arrantzaleak* eta euskal gramatikaren zati batzuk aurkeztu zituen Azkuek eskariarekin batera. Aipatu epea bukatu zenean, bi tituludun agertzen ziren eskatzaile: Migel Unamuno, Filosofia eta Letretan doktorea, eta Resurreccion M. Azkue batxiler tituluduna eta laster apezgoa lortzeko zena. Titulu gabeko Sabino Arana Goiri, Luis Iza eta Pedro Alberdi ere agertzen ziren, eta epetik kanpo Eustakio Madina. Botuetara jo zuen batzorde erabagileak eta hamaika boto eman zizkioten Azkueri eta hiru Unamunori. Beraz oraindik diakonoa zen lekeitiarrari eman zioten lanpostua eta ardura. Urrian hasi zen Azkue

euskara ikasketak ematen eta ikasleentzat ikasbideak prestatzen, zeinekin baliatuz *Euskal Izkindea* edo Gramatika argitara eman zuen 1891n. Baina ikaskuntzatik aparte beste euskararen aldeko hainbat lan eskuartean zituenez, Hiztegia, aldizkariak, musika biltze lanak, eta abar, 1903-1904 ikastaroa bukatu arte jarraitu zuen Institutuan, Ebaristo Bustintza «Kirikiño» aurrerantzean zeregin horrekin arduratu zelarik.

Instituto mailan soilki euskara irakastea ez zitzaion nahiko iruditu

### LEKEITIOKO ELIZA ETA PORTUA

R.M. Azkuek Lekeitio kostaldeko herrian eman zituen haurtzaroko urteak. Sorterriarekiko atxekimendua nabaria da Azkueren bizitzan: han ikasi eta maitatu zuen herri-hizkuntza eta jakitate; Lekeitioan egin zituen lehen ikasketak, eta betiko oporraldiak.





LEKEITIOKO NAUTIKA-ESKOLA  
Lekeition 1863an ireki zen Nautika Eskola, eta bertara bildu ziren R.M. Azkueren gurasoak, berau jaio baino urte bete lehenago, aita irakasle gisa lehenagotik ere Bermeon eta Mundakan ihardun ondoren. Semeak ere bi urte eman zituen Eskola hartan ikasle legez.

Azkueri eta hurrengo urteetan **Ikastetxe** izena eman zion oinarrizko euskal eskola sortzen saiatu zen, azkenean Jardines kaleko 10. zenbakiko etxearen bigarren solairuan 1896.eko urrian zabaldu zuena. Haurrentzat euskal ikastaldiak antolatzen zituen egunez eta eskola orduak amaitu ondoren, bertan biltzen

ziren **Euskaldun Biltokia** elkartekoak. Hemen antzeztu ziren euskal giroko antzerki musikaturako Azkuek prestatu zituen lan batzuk. Eta toki honetan egon zen Azkuek berak ia bakarrik euskara hutsean argitaratzen zuen *Euskalzale* aldizkaritzaren zuzendaritza. Baina ikaskuntzako arlo honetan egiten ari zen lana ere utzi beharrean aurkitu zen, denetara heldu ezinik zebilelako, baina berak hasitako lanak jarraipena izan zezan, Ploermeleko Anaiekin harremanetan jarri zen eta 1903an Franzisko Jose Lapeyre fraideak, Azkueren laguntzarekin, Balentin Berrio-Otxoa izeneko ikastetxea sortu zuen.

## Bizitza baten zertzeladak

Gizon gorputzua zen Azkue, gaztaroan ehun kilotik gorakoa. Osasuntsua zen benetan eta ez zen inoiz gaixorik egon; birritan baizik ez zen lanezinezko zorian aurkitu, bi istripu jasan zituenean hain zuzen, bata 1903.eko uztailean, Bilbon tranbetik jausi eta besoa apurtu zuenean, eta bestea, geroago, erorketa baten saihetsa hautsi zitzaionean. Berrogei urte edo zituelarik horzduraren kexa agertzen zuen baina Kolonian egon zenean konpondu zituen hortzak eta ez zuen gehiago ahominik izan.

Urria zen Azkue bere bizitzan. Urrijalea zen. Tours-en zegoelarik honako hau izan zuen Gabon gaueko afaria: «txokolate ta esne katilu bat eta bi sagar». Oso gutxi jaten zuen eta bazkari eta afari orduetan edalontzi bete ardo sifoiarekin. Goizeko zortzi t'erdietan hartzen zuen gosaria

#### GASTEIZKO SEMINARIOAN

Gasteiza abadegai bezala joan aurretik, Batxilergoa Bilbon burutu zuen R.M. Azkuek (1878-1881). Hurrengo lau urteetan Gasteizko Seminario zaharrean egin zituen Filosofia eta Teologiako ikasketak. Hemen sortu zitzaizkion musika- eta folklore-zaletasunak.



kafesnea zen, eta ez zuen gero ezer dastatzen ordu bat t'erdietako otordurarte. Diru apur guztiak liburu erosketetan eta bidaietan gastatzen zituen. Azkueren etxean ez zegoen ez gramofonorik, ez irrataparailurik; 1940 aldera erosi zuen bat. Baina jantzkerakoan txukuna zen, parra-parra gastatu gabe noski.

Bilboko Campo de Volantin delako kalearen lehen zenbakiko etxean, laugarren solairuan, agertzen da auzotua 1890.eko udal erroldan. Ama, Aurora eta Diana bi arrebeekin bizi da eta «euskara irakasle» gisa azaltzen zaigu. Urte bi geroago «katedratikoa» da azaltzen den ogibidea. Etxez aldatu zen 1895ean, eta kale bereko 15. zenbakia duen etxera doa. Denbora gutxi ematen zuen Azkuek etxean, egun osoa lantokian betetzen baitzuen Euskaltzaindia sortu zenetik (1919), Erribera kaleko egoitzan.

Goiztarra zen Azkue: seietan jaiki eta sei t'erdietan ematen zuen meza San Nikolas Parrokian. Zortzietan hasten zen lanean eta lantokira eramaten zion gosaria Felisa neskameak. Etxean bazkaldu ondoren berriz eusten zion lanari gaueko bederatzia arte. Ibaiertzetik, errosarioa errezatuz, itzultzen zen etxera. Egunero *Kristau urtea* irakurri ondoren oheratzen zen hamarretan.



**KORUAREN ZUZENDARI** (Salamanca, 1887)  
Gasteizkoaren ondoren, hurrengo ikas-pausoa Salamanca-rantz eman zuen Azkuek (1885.eko udazkenean). Doktore-ikasketak egiten zituen bitartean bestelako ikaslan osagarriak ere burutu zituen han: argazkian, koruaren zuzendari bezala ageri zaigu (eskuineko ertzean).

Mari Karmen Aberasturi ama 1913.eko otsailaren 13an hil zitzaion Bilbon eta aurrerantzean arreba neskazarrekin iraun zuen. Diana zen etxeko lanekin arduratzen zena, eta Aurora, maistra zenez, bere ogibideko lanetan zebilen. Etxeko hiru ezkongabeen adinak Felisaren laguntasunez baliazera behartu zituen. Diana (1934) eta Aurora (1937) hil zirenean, Felisaren ahizpa Margarita ere gelari hartu zuen. Sol izeneko beste arreba, ezkongabea eta maistra hau ere, Lekeition bizi zen eta honen etxean ematen zituen Azkuek opor egunak, uztailaren 7an urtero eta hutsik gabe atsedendialdiari hasiera emanez. San Antolinak heldu orduko Bilbora itzultzen zen berriz lanean hasteko.

Celestino Maria del Arenal Bilboko notariaren egiaztapenarekin sinatu zuen Azkuek testamentua 1946.eko uztailaren 3an. Gregorio Maidagan, bere zadorlaria eta Jorge Villa organularia izendatu zituen oinordeko. Eta azken ordurarte ekin zion lanari. Gau beltz baten, 1951.eko urriaren 22an, etxera zihoala, Nerbioi ibaira erori zen eta Fernando Voz Peña jaunari esker atera zuten uretatik. Orduan ere urak kutsatuak ziren eta hesteriz hil zen Azkue azaroaren 9an, arratsaldeko sei t'erdietan. Hurrengo egunean, goizeko hamaiketan ospatu ziren San Nikolas parrokian elizkizunak. Vista Alegre kanposantuan izan zen lurperatua, baina Lekeitiora eramanak izan ziren hezurak.


## Azkue apeza

Azkuek ez zuen inongo parrokiarekin loturarik izan. Meza berria eman ondoren eta euskarazko ikasketak Institutuan ematen zituelarik, Aingeru Zaindarien Institutua sortu zuen. Rafaela Ibarrenaren etxeko kapeilaua izan zen izendatua 1889an. Tours-era joan arte iraun zuen kapeilautza honetan eta han ezagutu zuen, izekoa zenaren etxean, Julio Urkixo, gero Azkuerekin batera hainbat lan eta ikerketa burutuko zituena.

Azkueren biografian ezagutzen ez den alderdi bat da Jesusen Lagundian sartzeko izan zuen asmoa. Rafael de Leon jaunari 1895.eko abenduaren 10ean idazten dion gutun batean zera diotso: «nere sinaturaren ondoan jarriko nituen gaur, beharbada, S.J. inisial opagarriak Alfonso hilda egon ez balitz». Nautika Eskolan irakasle zen anaia hil zitzaion Azkueri 1894.eko apirilaren 28an, eta honekin Lekeition bizi zen Mari Karmen ama apezaren babespean geratu zen. Eta ama 1913an hil zenean berpiztu zen erdi lotan zegoen bokazio hura. **Urlo** opera estreinatukeran jasan zuen Azkuek nahigabe ikaragarria eta Loiolara jo zuen aspaldiko asmoa betetzera.

«ACORDEMOS NUESTRAS LIRAS»

Lekeition bertan hasi zituen Azkuek musika-ikasketak; Bilbon eta Salamancan jarraitu zen gero, Parise, Brusela eta Kolonian bukatzeko (1904-1909). Hona hemen Azkueren lehen musika-lanetakoko bat.



Baina Zumaian, Txomin Agirre adiskideak, hartutako erabaki hori hobeto hausnar zezala eskatu zion, eta Bilborako bidean jarri zuen berriro.

Azkue apezaren alderdi garrantzitsua bere sermoiek betetzen dute. Igandero, 1899an hasita Tours-era joan arte, Bilboko Santiago Basilikan egiten zuen sermoia euskaraz, goizeko seietako mezatan. Horrez gainera, euskaraz hitz egiteko zeukan erraztasun eta mintzaira ederragatik, jai, hirurren eta beste antzerako elizkizunetan sermoiak egitera deitua izaten zen. Horieta batak inprimatuak izan ziren, hots, Begoñan 1890.eko San Jose egunean egin zuena, Gernikan 1895.eko uztailaren 21 ean egindakoa, gero *Jangoikua eta Fuegoak* liburuan argitaratua, eta Ordiziako Euskal Jaietan 1904.eko irailaren 18an egindakoa, herri horretako Monografian Etxegarai eta Muxika jaunek argitaratua.

Apez izateak eta musikarako zeukan joerak, antolatu ziren Eliz Musikazko Ihardunaldi ia guztietan partaide izatera bultzatu zuten, Bilbon 1896an antolatutakotik hasita. Goikoetxea eta Otaño adiskideak Valladoliden 1907an antolatutakora joan ezina izan zuen (hain zuzen, Bruselan musika ikasten zegoelako), ez eta Sevillan



#### BILBON BIZITZEN

Azkueren kultur lanaren bizileku eta egoitza finkoa Bilbo izan zen; bertatik eta bertara joan-etorritan ezagutu zuen Euskal Herriaren hizkuntz, folklore- eta musika-altxorra. Bilboko Campo de Volantín kalean (bi etxe ezberdinetan: 1 eta 15ean) bizi izan zen, 1888tik aurrera bederen).

eratutakora, kasu honetan Kolonian zegoelako. Baina Barcelonan 1912an III. Biltzarra antolatzen denean, han dago; Baionako Biltzarrera ere badoa, eta Gasteizen 1928an eratutakoan ere partaide da, hitzaldi bat emanez gainera. Begoñako Ama Birjinaren Bureskundeko jaiak antolatu ziren Bilbon 1900.eko irailean. Musika

azpibatzearen buru izateaz gain, Azkuek euskaratu zuen *Bederatziurrena* eta hasiera egunerako *Otoiz-kantu* bat konposatu zuen. Eslabaren *Meza* ere zuzendu zuen Begoñan eta Azkuek idatzitako olerkiarekin Buenabentura Zapirain adiskide lekeitiarrak musikatutako *Ereserkia* irailaren 8an kantatu zen.



Egindako osterak askoren artean, bi egin zituen Palestinara: lehena 1902an, gertaldi honetarako *Euskalerritik Palestinara* ereserkia konposatuz; eta bigarrena 1911n. Kolonian 1909an antolatu zen Nazioarteko Eukaristi Batzarrean ere egon zen, oporrak atzeratuz, abuztuan ospatu baitzen biltzar hau. Erroman ere egon zen 1923an, eta Alemanian egin zituen egotaldietako adiskide kutun bat aurkitu zuen, Beda Kleinschmidt frantziskotarra; honekin joan zen Teresa Neumann estigmatizatua ezagutzera 1928ko udan. Hurrengo urtean *La estigmatizada de Konnersreuth* liburua idatzi eta argitaratu zuen Barcelonan.

Josulaguna izatea ezinezkoa zela ikusi ondoren, Gasteizko katedralean txantre izatera saiatu zen Azkue. Lehenago, 1913an, Santiago de Compostelako txantre izatea eskaini zion Nuntzioak, baina ez zuen onartu, Euskal Herritik kanpo ez zuelako egon nahi. Eta 1914ean, nahiz eta Segoviako apezpikua zen Remigio Gandasegi adiskidearen laguntza izan, ez zuen lortu Gasteizen nahi zuen kargua. «Akademia sortzeko asmotan, Diputazioen aurrean agertzeko eliz goigizon bezala» lanbide hori baliogarria izango zitzaiokeela esaten zion Azkuek Gasteizko apezpikuari eginiko eskarian.

Hiru apez ekintza ziren Azkuarentzat gogoko: Apezteriaren Batasun Apostolikoa, Apez Ostegunen Erakundea eta espainiar atzerriratuenganako laguntza. Apez Ostegun Erakundeari hiru liburuxka zuzendu zizkion, bata bizkaieraz, bestea gipuzkeraz eta hirugarrena gaztelaniaz, baita *Ereserkia* ere. Jesusen Teresa-rekiko debozio berezia zeukan eta honen ohorez ere *Ereserkia* musikatu zuen.



*EUSKAL IZKINDEA* (1891)  
Bizkaiko Institutuko katedra-Unamuno eta Aranarekin lehian- 1888an irabazi zuen Azkuek. Berehala hasi zen bere irakas-lanetarako langaiak sortzen. Ahalegin horren emaitza izan zen *Euskal Izkindea* gramatikazko argitalpena, teoriak zabaltzeko ezezik irakas-tresna bezala ere pentsatua.



#### IKASTETXEA (1996)

Azkeri zor zaio Eusko Pizkundearen barnean oinarritzko euskal eskolaren lehen saioa, Bilboko Jardines kalean lekutua: «Euskal Ikastetxea». Berak bakarrik ezin eta fraile irakasleak bilatu zituen asmoari segida emateko. Geroago ere, abiapuntu bezala, eredugarri gertatu zen Azkueren proiektua, Plaza Barriko Eskoletarako, adibidez (1908-24).

### Argitarazle, idazle eta hizlaria

«Apaiztu nintzen urtean -diosku Azkuek- *La Abeja* izeneko aldizkaritxo bat argitaratu genuen lau edo bost lagunen artean» (Sabino Arana, Silberio Etxebarria, Antonio Arginzoniz ziren tartean). Aldizkari honetan

argitaratu zituen Azkuek, 1889an hasita, bere lehen lanak, bata *Peru matraka ta Pedranton* kondaketa atsegina. Zortzi urte geroago, ordurako ekintza arriskugarria zen bati ekin zion: *Euskalzale* astekaria, euskara hutsean argitaratzeari. Izenorde hauekin sinatzen zituen on Resurreccionek bere idazlanak: *Eketa*, *Basozale bat*, *Euskalzale*, *Tsirrist eta Vascofilo*. Hiru urte iraun zuen astekariak (1897-1899) eta euskara hutsean agertzearen debekatua izan zen. Baina euskararen zabalkundearentzat lanean jarraitu zuen Azkuek eta 1902an Kirikiño zuzendari ofizial gisa jarriz, *Ibaizabal* aldizkaria atera zuen Azkuek, bizkaieraz eta gipuzkeraz, bi urtetan kaleratu zena.

*Euskalzale* aldizkarian argitaratu zuen Azkuek lehendabizi Pedro Ignacio Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* (1897) Juan Carlos Guerrak luzatu zion kopia batetik hartua. Baina lehenagotik hasia zen euskal idazleen lanak, liburu eran, ezagutzera ematen. Aipatu aldizkariaren «moldagintza» eduki orduko, Astui-renean argitaratu zuen *Parnasorako bidea*, non Eusebio Maria Azkue aitaren olerkiak eman zizkigun (1896). Hurrengo urtean, bere bulegoa eta moldagintza Jardines kalean kokatu zuenean, *Euskalzaletan liburtegia*-ri ematen dio hasiera, Pedro Antonio Añibarroren *Eskuliburua* kaleratuz.



**EUSKALZALE (1897-1899)**  
Jardines kaleko etxetik zuzendu eta zabaldu zuen Azkuek aldizkari berri hau, irudiz ere hornitua: «Euskerazko albistari edergarriduna» zioen azpigituluak. Euskara hutsean kaleraturiko astekaria izan zen hau, ia osorik berak idatzia.

Moldiztegi honetatik atera ziren gero Juan Antonio Mogelen *Konfesio ona*, Juan Antonio Ubillosen *Kristau doktriñ berri ekarlea*, Añibarro eta Mogelen *Meza entzuketara bi* eta Domingo Agirreren *Auñamendiko lorea* (1898). Erljiozko liburuak izan ziren bilduma honetan eman zizkigunak eta gehienak Bizkaiko idazleenak. Eta azken ildo honetatik jarraituz, baina erlijio gaia alde batera utziz, Mogelen *Peru Abarka* elebiduna izan zen eman zigun azken liburua (moldiztegia itxi baitzioten), gaztelarazko itzulpena Azkuek berak egin zuelarik.

Baina lehenagotik hasia zen bere literatura lanak azaltzen, institutuko ikasleentzat irakurgai gisa baliatzeko. Antoine D'Abbadieri zuzendu zion 1893an *Bein da betiko*, bizkaieraz eta Lekeitioko azpieuskalkian. *Tsirristadak* izenpean argitaratu zituen gero liburu batetan *Euskalzale* aldizkarian zatika emandako pasadizo, txiste, irazkin eta abar (1899). Hiztegiak, kantutegiak eta operagintzak beteko dituzte luzaro Azkueren egunak, 1918an *Ardi galdua* elaberria gipuzkeraz argitaratu arte, hurrengo urtean *La oveja perdida* titulupean gaztelaniaz ere eman ziguna. Elaberriari ekin zion eta argitaratuta ikusi ez zuen *Latsibi* idatzita utzi zuen, Euskaltzaindiak 1989an kaleratu zuena, Labayru taldeak ere urte berean argitaratu zuena. Euskal literaturari Azkuek eman dion fruitua ugariagoa da, noski, baina ehun orrialdetik gorakoak

11



**IBAIZABAL (1902)**  
Berriz ere bere ordu beteei tarteren bat lapurtuz kazetaritzari egin zion leku Azkuek; astekari berri honetarako E. Bustintza Kirikiñoren laguntza izan zuen, eta baita Tx. Agirre, P.M. Urruzuno, P. Zamarripa eta abarrena ere.

bakarrrik aipatu ditut. Argitaratu gabe utzi zuen, eta hala jarraitzen du Euskaltzaindiaren artxiboan, *Kristoren antzbidea*-ren itzulpenak, Azkue arlo honetan ere maisua dela adierazten diguna.

Hitzaldiak ere ugari eman zituen. Aipagarrienak emango ditugu hemen: *Euskal herri musikaz* (1901), *Euskararen zabalkunde eta euspenerako biderik egokienak* (1904), *Euskararen azentuaz* (1904), *Oinarrizko eskola Alemanian* (1916), berriz *Euskal herri musikaz* (1918), *Euskal fonetikaz* (1918), *Euskal semantika* (1922), *Tradizioa gure elizako herri musikan* (1928), eta abar luze bat.

#### GERNIKAKO ARBOLAPEAN (1897)

Euskal Akademia -Euskaltzaindia, 1918- sortu aurretik hainbat ahalegin egin zen euskaltzaleen artean Erakunde hori eratzeko. Azkueren eskutizketan jaso liteke saio haien berri. Argazkian, F. Arrese Beitiaren ondoan ageri zaigu Azkue, garaiko baste zenbait euskaltzalerekin batera.



## Azkue folklorista

Apezgai garaian sortu zitzaion ikerketa hauetarako zaletasuna. Eta berak dioskunez, amarengandik zetorkion, uholde bezala, arlo honetako jakituria. Zahartegietan edo bere poltsikotik ordainduta eratzten zituen bileretan sortu zituen hainbat eta hainbat «herri jakintzaren» adibide eta adierazpenak. Ordurako zaharrak zirenez lekuko aukeratu zituen atso eta agureak; beraiengandik ikasitako gaiak benetan aintzinakoak zirela ikusten zuen Azkuek alde batetik, eta arrotz hizkuntza eta ohiturekin nahastuta ez zeuden euskaldun garbiak zirenez gero, euskal kultura jatorraren eredutzat har zitzakeenak. Bi bilduma haundi osotzeko helburua zeukaten bilketa lan guzti hauek: herri kantuen eta herri jakintzarena.

## Euskal herri kantutegia

Ordurarte herriaren ahotik jaso eta argitaratutako kantuak oso urriak ziren eta ez Euskal Herri osoan bilduak, gehienak Iparraldekoak eta Gipuzkoaren zati batekoak baitziren. Gure herriaren musika altxorra askoz ere aberatsagoa zela ikusi zuen Azkuek (eta gero Jose Antonio Donostiak); beraz, hiztegi gintza lanean hasi zenean, egiten zituen



TOURSen (1905)

Axularrek hainbeste maite izandako Etxausen Apezpiku-hirian eman zuen argitara Azkuek bere Hiztegi handia, Mame moldiztegia: *Diccionario Vasco-Español-Francés / Dictionnaire Basque-Espagnol-Français* deitu zuen. Bi urte t'erdi egin zituen Azkuek han: «Ez al dut nik dena utzi, baserri honetan bizitzeko, gure hizkuntzak horixe eskatzen zidala ikusita?», idatzi zion Piarres Broussain-i (1904).

bilera eta bidaietan, herri kantuak biltzeari ere ekin zion. Hainbat orri solte, koaderno eta abar betetzen ziharduen Euskal Herrian zehar, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek 1912an euskal kantutegirik hoberena saritzeko lehiaketara dei egin zutenean, bi

milatik gora kantu, doinu eta dantzarakoak bilduta zeuzkan Azkuek.

*Vox populi* (Herri ahotsa) ezaugarriean 1689 ahozko melodia eta 121 musikagailurentzako aurkeztu zituen lehiaketara, aita Donostia ere bere aldetik aurkeztu zen aldi berean. Diputazioek izendatutako epaimahaikoez Azkueri eman zioten lehen saria 1915ean eta sarituriko bilduma hori argitaratzea erabaki zuten. Aita Donostiarenak bigarren saria irabazi zuen eta *Euskal Eres Sorta* izenarekin argitaratua izan zen Madrilen 1921 ean. Baina Azkueren bilduma geroxeago kaleratu zen, 1922 eta 1925 bitartean, hamaika tomotan Bartzelonan atera zelarik, *Cancionero Popular Vasco* tituluarekin. Bigarren argitarapena Jose Maria Martin de Retanak eman zigun 1968an eta hirugarrena Euskaltzaindiak kaleratu zuen 1990ean. Aipatu hiru argitarapenetan, lehiaketara aurkeztutako baino kantu eta doinu gehiago agertzen dira, geroztik bildutakoak ere erantsi baitzituen Azkuek mila eta bat kantu emanez. Baina beste kantu bilduma bat ere eman zigun lekeitiarrak, *Cancionero Selecto* izenekoa, non 200 kantu eman zizkigun 1921ean ahots eta pianorako apainduak.

13



VIZCAYTIK BIZKAIRA (1895) Bilbon euskarazko antzerti lirikoaren ereile bezala aipatu izan da Azkue, hain zuzen obra honetxegatik. Balio bikoitzeko ahalegina izan zen hau: euskarari erabilpen berri bat eman ziolako, eta bertan, musikaren bidez, hizkuntzaren defentsarik ere falta ez delako.

### «Euskalerrriaren jakintza»

Herri musikaren bilketan ziharduenean ohitura eta sineskeriak, herri olerkiak, haur jolasak, atsotitzak, esakerak, ahokorapiloak, goitzenak, igarkizunak, ipuin eta irakurgaiak, eta beste, biltzen zituen Azkuek. Hizkuntzalaritzako lanak burutu zituenean 1932an, gai guzti hauek taiutzen hasi zen 68 urte zituelarik *Euskalerrriaren Yakintza*, lau tomotan, argitaratzeko prestaketa lanetan sartu zen buru-belarri. Lehen argitarapena 1935 eta 1947 urteen bitartean kaleratu zen. Argitarapen hau apaintzeko hainbat argazki eta Zuloaga, Zubiaurre, Ginea, Tillac, Goiko, Garabila, Txiki, Molto, Garmendia, Ajubita, Arostegi, Urreta eta beste irudigileen marrazkiez baliatu zen. Folkloreko lan elebidun

hau laster agortu zen mami baliotsu eta itxura ederrari esker. Egilea hil ondoren, bigarren argitarapena kaleratu beharrean aurkitu zen argitaratzailea 1959 eta 1971 urteen bitartean. Bigarren hau ere agortua zen Euskaltzaindiak 1989an lau tomoko argitarapen faksimilatua kaleratu zuenean. Euskal etnologiako gaiak gero eta gehiago aztertuak diren neurrian, oinarrizko lana dugu hau, hainbat herri jakintzaren arloak biltzen ditu eta, euskal kulturaren erraldoi baten lana delarik.

Kantutegia eta *Euskalerrriaren Yakintza* burutu zituenean, amets bat bete zuen Azkuek: gerorako bildu eta finkatu galtzen zegoen herriaren ondarea, berari eta beste folklorista batzuei esker betirako gorde dezakeguna.



LA MUSICA POPULAR BASKONGADA (1901) Azkueren lanen artean musikologiarena ere gogoan hartu behar da: ez zen bakarrik herrikantategia bildu edo musika berria sortzeaz arduratu, euskal musika aztertu ere egin zuen, eta bere jakitatea hitzaldietan zabaldu. Bilboko Euskal Etxean emandako hitzaldibat da hau (1901-otsailak-15).

## Azkue musikalaria

Jaioterrian egin zituen lehen musika ikasketak eta Salamancako apezgaitegian koruaren zuzendaria zelarik egin zituen lehendabiziko konposaketak: *Regina coeli*, *Miserere* eta *Meza* bat. Baina hasierako musikalan hauek ez dute gerokoek agertu dizkiguten iradokimen eta teknikarik. Bilbon 1888an lanean hasi zenean, Sainz Basaberekin egin zituen lehen harmonia ikasketak eta orduko eliz musikagileen partiturak aztertzen hasi zen, Charles Bordes-engandik polifoniazko antologia jasotzen zuelarik. Baina Azkueren lehen emaitza profanoa izan zen eta euskararen zabalkunderako asmatua:

EUSKALERRIAREN  
YAKINTZA  
(1935-1947)  
Hizkuntza eta  
musikarekin batera,  
herritarren ohizko  
jakitea biltzen ere  
saiatu zen R.M.  
Azkue: obra honetan  
jaso zituen  
herritarren  
sineskizunak, esaera  
zaharrak, ipuinak,  
etab. Behin eta  
berriz eman da  
argitara lau  
liburukitako bilduma  
hau.



15

*Vizcaytik Bizkaira* (1895), *Eguzkia nora eta Sasi eskola* (1897), *Pasa de Chimbos eta Colonia inglesa* (1898). Ez du berriz lan pedagogiko hau ikutuko, 1917an *Aitaren bildur* antzetzute arte. *Euskerazko eresiak*, herri kantu harmonizatuekin kaleratzen ditu 1897an.

Elizarako kantuak ere ematen dizkigu garai honetan: *Eleizarako eresiak* (1897), *Jesusen Bihotzari Oihuak* (1899), *Done Joseperi Bederatziurrena* (1900), *Arrosario oso bat* eta abar. Orduan egindakoa dirudi *Lamindano* poema lirikoak, Karmelo Etxegaraireren testuaz baliatuz.

Baina euskal musika arloan bigarren mailako lanak dira guzti hauek.



CANCIONERO  
POPULAR VASCO  
(1922-1925)  
Kantategi herritarra  
Euskal Herri osoan  
biltzen hasi zen  
lehenengoa izan zen  
Azkue, eta Aita  
Donostiarekin batera  
berak burutu zuen  
bilketarik handiena:  
1.810 kanta-doinu  
izan ziren 1912an  
Aldundien  
Lehiaketara bidali  
zituenak, eta gero  
Barcelonan argitara  
eman.



DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANÇES (1906)  
Euskal lexikografian obrarik gorenena izan da «Azkueren Hiztegia» esan ohi duguna: euskalki guztietatik eta garai guztietako idazleengandik jaso zituen Azkuek langaiak. Obra erraldoi honek - euskararen hiztegi-ondarea osorik eta asebetean jaso gabe ere- berri lerro nagusietan zuzen deskribaturik utzi zigon.


#### PARISEN

Bere kultura mesedetan eta euskararen onerako hainbat bidaia egin zuen Azkuek Europan zehar: Frantzia, Belgika, Alemania, Ingalaterra, eta abarretan. Parisen bertako Bibliothèque Nationale-an euskarazko iturri argitaragabeak gozoz bilatu zituen (Oihenart, Zabala, Bonaparte, etab.).



Azkueren musikagintzan hirugarren aroa hasten da 1904ean, Parisen, Bruselan eta Kolonian ikasketak burutzen dituenean. Azken hiri honetan, beste musikalan txikiagoetatik aparte, *Daniel oratorioa* eta *Andra Urraka* poema sinfonikoa burutzen ditu. Bilbora 1909an itzultzen denean, Parisen ikaskide ziren Usandizaga eta Guridiren operak entzungo ditu: *Mendi mendiyen* eta *Mirentxu*, biak 1910ean estreinatuak. Eta ildo beretik jarraituz, baina Wagner-en eraginpean, hiru ekitaldiko opera musikatzen du, *Orturi* izenekoak, 1911n estreinatzen dena. Beste lan guztiak alhora utzita, *Gainzabalgo eiztariak* berak idatzitako antzerkitxoa gidoitzat hartuz, beste opera bat, *Urlo* izenekoak, musikatzen hasi zen, 1914ean Alemanian argitaratua. Urte honetako maiatzaren 29an estreinatu zen Bilbon opera hau, baina ez zuen arrakastarik izan eta, gainera, diru mordoak galdu zuen egileak ekintza honekin. Loiolarako bidea hartu zuen, josulaguna izateko bokazioa berpiztu zitzaion eta; baina Txomin Agirre adiskideak gomendatu zion Bilbora itzultzea. Hemen bukatu zen goi mailako Azkueren musikagintza.





### ORTZURI OPERA (1911)

1909tik 1914era doa euskal operaren bost urtetako loraldi harrigarria: Azkue ere tartean izan zen, Parisen bizilagun izandako Usandizaga eta Guridirekin batera. Lehenengoaren *Mendi mendiyen* eta bigarrenaren *Mirentxu* 1910ean estreinatu ziren, eta horien arrakastek eraginik prestatu zuen Azkuek Ortzuri; baina ez zituen honek txalo berak jaso.

## Azkue hizkuntzalaria

Hau da izatez Azkueren izaeratik gehien aztertua izan den arloa eta osperik gehien eman diona, bere bizitzaren etengabeko ekintza izan baitzen 1888an Bilboko Institutuan katedra irabazi zuenetik. Euskal aberriarenganako izan zuen maitasunaren ardatza euskararekiko ikerketak, ikasketak eta argitarapenak izan zirela esan genezake, nahiz eta bertan nahigabeak ere aurkitu, zeren hizkuntzalaritzaren iraultza baino lehen hasi zituen bere lanak mende honen hasieran.

## Gramatikaria

*Euskal izkindea*: euskal katedrarako argitaratzen duen gramatika da Azkueren lehen lan sakona. Astarloa, Juan Mateo Zabala eta Kanpion dira gramatikari berriaren pentsamoldea elikatzen duten iturriak, artean ez zituen Bonaparte eta beste hizkuntzalari batzuen lanak ezagutzen eta. Euskara hutsean argitaratzen den gramatika dugu 1891n Azkuek eman zigun gramatika hau, «Lehen alaba eskasa», berak aitortzen duenez. Orduetik 1923an *Euskal Morfologia* argitaratu arte, zeharo aldatu zen Azkueren gramatikarekiko ikuspuntua eta pentsamoldea. Epe laburrean nabaritzen da bilakaera hori Azkuerengan. *Ortografiako Proposamena* argitaratzen du 1896an, eta urte berean *Bizkaiera eta Gipuzkera ikasteko Jardunbidea*, azken honi 1898an *Gaien Argibidea* gehitzen diolarik. Bi liburu ematen dizkigu 1897an: *Bizkaieraz elkarrizketan ekiteko Eskuliburua* eta *Euskara 120 ikasgaietan*. Egia esan, ez dira gramatikak aipatutako guztiak, ikasbide edo metodoak baizik; 1917an bukatu zuen euskararen pedagogia lana *Herriko euskara ikasteko laburpen erraza* liburuarekin. Euskaltzaindia sortu ondoren emango dizkigu hainbat eta hainbat ikerketa, *Euskera* agerkarian azalduak, zeinetan agertzen zaizkigun arlo honetan Azkuek zabaldutako bide berriak.

17



EUSKAL-ESNALEA-ren BILERAN (1916)  
XX. mendeko lehen bi hamarkadetan behin eta berriz bildu ziren euskaltzale eta euskalariak hizkuntzaren aldeko erakunde ofizial bat sortzeko asmoz. Euskal-Esnalearen inguruan, adibidez: Azkue tartean izan ohi zen honelakoetan.

## Lexikografoa

*Euskara-Espainera-Frantses Hiztegia* (Diccionario Vasco-Español-Francés) ikaragarriko lana, beharrezko eta premiazko betebeharra zelakoan hasi zuen Azkuek, Koldo Mitxelenak dioskunez. Euskal hitzen kopurura gehien hurbildu den hiztegi hau agertu zenean, pozezko oihuekin agurtu zuten puntako hizkuntzalariek, Hugo Schuchardt-ek, adibidez. Euskal Herrian zehar bildutako aztarnekin eta euskal literaturan eredutzat hartu behar ziren idazleen lekukotasunaz baliatuz lortu zuen Azkuek euskararen Hiztegi historikoa osotzea. Ez da, ba, meritu gutxikoa lan oroigarri hau.


Hiztegi hau inprimatzeko Bizkaiko Diputazioaren babesa lortu ondoren, 1904.eko urtarrilaren 2an Tours-era doa Azkue Alfred Mame et Fils moldiztegi argitarapena hurbiletik zuzentzeko. Urte bi t'erdi beteko ditu lan aspergarri honetan, eta 1905ean kaleratuko du

lehen tomoa (A-LL) eta 1906.eko maiatzean bigarrena (M-Z). Tarteetan Paris eta Londresera bidaiak antolatzen ditu eta hemendik lortzen du Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek Bonaparteren eskuizkribu guztiak erostea. Azkueren Hiztegia, «La Gran Enciclopedia Vasca»k berrargitaratu zuen neurri txikiago batean, 1969an, eta Euskaltzaindiak kaleratu zuen hirugarren argitarapena 1984ean, lehendabiziko bi tomoak batetan faksimilaturik.

Ez zen hau izan Azkueren lan lexikografiko bakarra, 1918an *Poltsikorako Hiztegia*. *Euskara-Espainera / Espainera-Euskara* kaleratu baitzuen. Beste hiztegi haundiago bat ere kaleratzen hasi zen, *Espainera-Euskara Hiztegia* 1916an, baina **A** letrako hitzak hiru koadernotxotan eman ondoren bertan behera utzi zuen argitarapena.

### MORFOLOGIA VASCA (1923)


Bere lanetara arte ezezaguna zen maisutasuna erakutsi zuen Azkuek euskara aztertzean. Lehenengo urrats handia Hiztegiarena izan zen; bigarrena, euskararen morfologiaren ziharduen liburu honena, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian emana. Gaur egun ere, 70 urte geroago, euskal lanetan etengabe aipatua da berau.





AEZKERA  
Euskal Herri osoko euskara ezagutzen eta biltzen ahalegindu zen Azkue, horretarako argibide-emaileak bilatuz eta aztertokitara bidaiak eta egonaldi luzeak ere eginez. Adibide ona da Aezkoako euskarari eskainitako lan hau.

Euskaltzaindia sortu ondoren, hainbat bilera egin ziren erakundearen Hiztegia kaleratzeko, baina ez zen ezer lortu Koldo Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratzen hasi arte.



ARDI GALDUA (1918)  
Euskalkien ezagutzarekin batera, maitea izan zuen Azkuek hizkuntza idatziaren batasunaren aldeko lana. Gerraurreko ahaleginen artean Euskaltzaindiak oso goiz heldu zion arazoari, eta Azkuek iritzi teorikoak emanez eta batasun-eredu praktikoa eskainiz lagundu zuen. Elaberri hau da horren adibide ezagun bat.

## Euskaltzaina

Bizkaiko Diputazioak beste hegoaldeko hiru Diputazioei **Euskararen Akademia** sortzea proposatu zien 1918.eko urtarrilaren 25ean eta urte bereko irailean Oñatin Eusko Ikaskuntzak eratu zuen Biltzarrean onartu zen erakunde honen Arautegia, 1919an Diputazioek berretsi zutena. Lau Diputazioen babespean sortu zen, ba, Bilbon egoitza izango zuen **Euskaltzaindia**. Azkue jauna izan zen lehen Euskaltzainburu izendatua, hil arte karguan ihardungo zuelarik, eta berarekin lehen laukotea osotuko zutenak, beste bizkaitar bat Julio Urkixo, giputz bat Luis Eleizalde eta nafar bat Arturo Kanpion. Hamabira arte gehitu zen kopurua 1919an Iparraldekoak ere izendatu zirelarik.

Sekulako lana burutu zuen Azkuek Euskaltzaindian, izatez bera izan baitzen ardatza eta eragile ordeztezina. Euskarari buruz ikerketak burutzeko hainbat bidaia egin zituen erbesteko artxiboetara, lan ugari prestatuz, gehienak *Euskera* agerkarian kaleratuak. Espainiako Erret Akademiakide izendatua izan zen 1927an eta hurrengo urtean irakurri zuen sarrera-hitzaldia: *Euskararen bereizgarri batzuk beste hizkuntza zahar batzuekin konparatuz*. Pariseko Elkarte Linguistikoaren kidea zen 1905.etik eta

19

Errusiako Zientzia Akademiak ere kideztat hartu zuen 1922an. Beraz, hizkuntzalaritza munduan ospe handia lortu zuen Azkuek.

Euskaltzaindiari atxekitako helburuak betetzen ahalegindu zen Azkue, hauetariko bat euskara batuarena hain zuzen. Bonapartek bezala, Gipuzkoako euskalkia eredutzat hartuz, *Gipuzkera osotua* proposatu zuen, Euskalki guztiak bilduz, hizkuntza literarioa zuzpertzeko. Euskararen batasuna bideratzeko, ordea, beharrezkoak ziren aurretiaz ikertu eta argitaraturiko lanak: *Euskal morfologia* (1923), *Aezkera edo*

#### AZKUE IKASTOLA (Lekeitio)

R. M. Azkueren oroitzapena euskal herritarren artean bizirik mantendu da, eta hainbat omenaldi egin izan zaizkio lekeitiar jakitun honi. Honen sorterriko ikastolak Azkue herritar handiaren izena darama.



AZKUE BIBLIOTEKA  
(Euskaltzaindia)  
Azkueren ondarean liburutegiak lekuri behinena izan zuen (berek eta euskaltzainburu izaki Akademian bildu zuenak); egindako liburu-ekarpen aberatsagatik, «Azkue Biblioteka» deritza gaur eguneko Euskaltzaindiarenari.



*Petiriberro inguruetakoko mintzaera* (1928), *Erronkariko euskalkiaren berezitasunak* (1932), *Gipuzkoako aditza* (1932) ehun orrialdetik gorakoak bakarrik aipatuz. Euskalkiei buruz *Aditz flexionarioa* eta *Erizkizundi Irukoitza* lan baliotsuak argitaratu gabe utzi zizkigun.

Laurogeita zazpi urterekin 1951.eko azaroaren 9an hil zenean, euskal kulturako arlo guztietan egindako lanen ondarea utzi zigun Azkue jaunak. Denetarikoak egin zituen eta halako pertsona bat bersortzea oso zaila izango da, gure kulturaren benetako erraldoia izan baitzen. Eta euskal aberriaren alde egin zuen guztiagatik eskerrik beroenak zor dizkiogu euskaldunok.